Erref. kodea: LAF-220-192 [91]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Zelaiburu: ¡Gora zuek! ; ¡Euskera gaxua!.....

// Euzkedi, 1935, 6961 zb., 12. or.

# ¡Gora, zuek!

EREZERKI (Himno)

Guda aundian il ziran Bidasoa
beste aldeko Eskualdunen oroitzaz.

¡Agur, zueki,
Ain eskualdun onak!
¡Gora ta gora,
Benetako gizoñak!
Alemanak, egun illun batean,
Indar-aundiz sartu ziran Frantzian.
Eta andik laisterka sartuko ziran
Gure Eskualerri zoragarrian.
Zuek, Amaren
Seme zindoak,
Ikusirik ¡ai!
Zorigaitzean
Jaioterria,
Gudara joan
Ziñaten, gogoz,
Eta antxe galdu
Zenduten zuen
Bizi maitea.
Orregatik ezin gu ixillik egon
Bidtzeko anai eskualdunak;
Goi-goraldu gabe zuen egizko
Maitasun bero ta aunditasuna.
¡Gora ta gora,
Benetako gizonak!
¡Agur, zueki,
Ain eskualdun onak!

Zelaiburu

# ¡Euskera gaxua!

¡Nere ele maite, Amatxo samur, gozua...
Laguntzik gabe beti zaudena auldua!
¡Amatxo kutun, gaxua!

Ama ona izan da semeak ez maitatzen...
Zoragarri izan da iñor ez Zutzaz oroitzen...
¡Semeak Zu ez maitatzen!

Ta Zu gau t'egun lagunik gabe bakarrik...
Beti oñazez... naigabez, itun, gaxorik...
¡Lagunik gabe bakarrik!

Erritar danak betiro Zutzaz aztuta...
Zuretzat lana alde ba'tera lagata.
¡Betiro Zutzaz aztuta!

Gogo surik ez iñork ere Zu ontzeko...
Maitetasunik biotzean ez zaintzeko.
¡Gogorik ez Zu ontzeko!

¡Nere ele maite, Amatxo samur, gozua...
Laguntzik gabe beti zaudena auldua!
¡Amatxo kutun, gaxua!

Ta zu bazuaz laisterka guztiz aitutzen...
Bizikai onik ta bero gabe oztutzen...
¡Laisterka guztiz aitutzen!

Bañan, Amatzo, ixil... nik maite biotzez...
Etzaite estutu... nik nai Zu zaindu gogo onez...
¡Zurekin gañaz, egunez!

Ta anai-arrebak beñere nai ez lagundu...
Ezergatik nai ez neke pizka bat artu...
¡Anaiak nai ez lagundu!

Eta ni beti Zûri begira negarrez...
Zu zaindu nai, ta iñork eskurik botzen ez...
¡Zûri begira negarrez!

Bañan... bakarrik badere egingo det lana...
Zugatik, Ama, eman bear det dan-dana...
¡Gogoz egingo det lana!

¡Nere ele maite, Amatxo samur, gozua...
Laguntzik gabe beti zaudena auldua!
¡¡¡Amatxo kutun, gaxua!!!

Zelaiburu

FSC
MIXTO
FSC® C001636